

LAN ISTRIPUEN AURREAN ARBIZUKO
UDALAREN ADIERAZPEN
INSTITUZIONALA

1. Arbizuko udalak bere elkartasuna eta atsekabea adierazi nahi die pasa den ostegunean, urtalilak 30 Altsasuko Lastadi enpresan lan istripua izan eta hildako Jose Alonso Aparicio Altsasuko herriko semearen familia, lagun, lankide eta gainerako gertukoei. Era berean, lan istripuak behin betiko desagerrarazteko hartu beharreko neurriak har daitezten aldarrikatu eta nondik norakoak argi ditzan eskatzen dio Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari.
2. Arbizuko Udalak lan segurtasuna bermatu eta lan istripuak behin betiko desagerraraztea ezinbestekoa dela adierazi nahi du. Helburu hau lortzeko, behar-beharrezkoa da egungo lan osasun eta segurtasunean aurrerapauso nabarmenak ematea zein langile guztien, eta batik bat egoera bereziki zaurgarrian dauden, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko Araudia zehatz-mehatz eta irmoki betearaztea.
3. Hori guztia dela eta, Arbizuko Udalak deia luzatzen die eragile guztiei administrazioa, erakunde sindikalak eta patronalarekin batera lan arriskuen prebentzioaren aldeko praktika onen jarrera izan eta bultza dezaten.
4. Arbizuko Udalak, bestalde, lan istripu hau deitoratzeko helburua duten ekimen eta adierazpenekin bat egiten du hildako Altsasuko semearen familia, lagun eta gertukoei bere hurbiltasun eta samina adierazi asmoz eta herritarrei ere halako ekimenetan parte hartze aktiboa egiteko deia luzatzen die.

Arbizun, 2025ko Urtarrilaren 31an.

